

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea noiz hasi behar diren Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailuaren obrak.	Lehenengo fasearen obrak 2021 urteko azaroan hasi ziren, eta bigarren fasearenak 2022ko ekainean.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du markesina bat jartzea Andrade kioskoa zegoen tokian.	Toki horretan ez dago tokirik markesina bat jartzeko. Puntu horretan, eskailera mekanikoak daude eta San Kristobalera igotzen den arrapala, oinezkoentzako pasabide batez gain.
Hirigintza	San Kristobal 27. zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea zergatik ukatu zaion komunitateari eraikinaren kanpoaldean igogailu bat jartzea; izan ere, barruan jarriz gero, beheko solairuko etxebizitzetara eragin beharko litzaieke.	Beheko solairuko etxebizitzetara eragingo ez dien irtenbidea azaltzeko aukera eskaini zaio komunitateari.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du San Kristobal 27 zenbaki parean dagoen horma eta mazela garbitzeko. Dioenez, arratoiak daude.	Ezponda azpikontrata batek garbitzen du. Lan hori uztailan egin zen. Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion beharrezkoak ziren neurriak hartzeko arazoa konpontze aldera.
Zerbitzuak	Auzokide batek San Kristobal kalea gehiago garbitzeko eskatu du.	Toki hori astean 3 aldiz garbitzen da, eta ontzat jotzen da maiztasun hori.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du San Kristobal 27 zenbaki parean dagoen baranda ebakitzeko. Dioenez, luzeegia da.	Baranda, irisgarritasunagatik, arrapala osoa hartu behar du istripuak saihesteko; hortaz, ezin da ebaki.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Obrak	Zezenbide 6 zenbakiko bizilagun batek salatu du 4, 6 eta 7 zenbakietako atariak sarbide txarra dutela anbulantziatarako eta su-hiltzaileen kamioetarako. Neurriren bat hartzea eskatzen du.	Sarbidea ona ez bada ere, ibilgailuak iritsi daitezke; beraz, epe laburrean ez da aurreikusten eremu honetan neurririk hartzea.
Obrak	Eskatu du obraren bat egiteko Zezenbide 4, 6 eta 7 zenbakietako atarietarako sarbideetan dagoen desnibela gainditzeko. Adierazi duenez, arazo handia da, batez ere, mugikortasun mugatuko pertsonentzat.	Gai honek irtenbide zaila dauka. Hobekuntza gisa, koexistentzia-gunea sor daiteke, oinezkoak erraztasun eta erosotasun gehiagorekin ibil daitezten, baina neurri honek ez luke pegorek duten irisgarritasun arazoa konponduko.
Alkatetza	Santa Ines 6 zenbakiko auzokide batek galdetu du ea noiz jarri behar dituzten emakidan Ipuruako garajeak eta ea futbol-zelaitik gertuen bizi direnek lehentasuna izango duten.	Beharrezkoak diren xehetasun teknikoak lantzen ari dira, garajeak emakidan atera ahal izateko. Dena den, laster izango da. Bestetik, futbol-zelaitik gertuen dauden kaleek izango dute garajeetarako lehentasuna.
Obrak	Santa Ines 8 zenbakiko auzokide batek iradoki du arrapala bat egitea kale horretako 22 zenbakiaren parean.	Datorren urtean, 2023an, Santa Ines kaleko 2 eta 22 zenbakien arteko pegoretako irisgarritasuna hobetzeko proiektua idatziko da.
Obrak	Auzokide batek eskatu dute Santa Ines kalea asfaltatzeko. Dioenez, jarri diren partxeak arriskutsuak dira.	2021 urteko asfaltatze lanekin batera konpondu ziren.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek kexa adierazi du Santa Ines kaleko 2 eta 14 zenbakien artean jarri diren argiak itsusiak direlako, eta, gainera, argi gutxi ematen dutelako.	Argi horiek auzokide-erkidegoekin adostu ziren. Argien azterketa egokia da.
Alkatetza	Eskatu du Eibar KT-k Ipuruan partida dagoen bakoitzean jartzen duen generadorea beste leku batean jartzeko.	Alkatetzak Eibarko KEn gai honen ardura duen pertsonari hainbat eskaera bidali ondoren, klubak, eskaerei erantzunez eta hainbat kokapen alternatibo aztertu ondoren, lekuz aldatu zuen generadorea.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du Ipuruan partida bat dagoen bakoitzean aparkatzea debekatzeko jartzen den kartela lehenago kentzeko, partida amaitu bezain laster.	Futbol-partidak daudenean aparkatzea debekatzeko duten seinaleak lehenbailehen erretiratzen dira, baina kontuan hartu behar da batzuetan jarrita egon behar direla harik eta telebistako unitate mugikorrek edo taldeen autobusak irten arte.
Hirigintza	Auzokide batek salatu du ez dela obren ordutegia betearazi anexoaren lanak egin direnean.	Ordutegiz kanpoko lanen salaketa bat jasotzen denean eta horretarako baimenik ez dagoenean, gelditu egiten dira obrak.
Zerbitzuak	Romualdo Galdseko auzokide batek eskatu du Argatxako iturria aldi berean behin garbitzeko.	Iturginak aldi berean egiten du iturri horren garbiketa. Batzuetan arazoa izaten da auzotarren batek kortxo bat sartzen duela hustubidean txakurrei edaten emateko, eta trabatu egiten duela iturria. Horren ondorioz, iturriak gainezka egiten du eta herdoil hori agertzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du Udalak ura eta xaboia edo bestelako produkturen bat banatzeko txakurrek txiza egitean gainerik botatzeko, eta, baita jabeak produktu hori erabiltzera behartzeko. Esan du kaleak txizaz beteta daudela.	Laster sartuko da indarrean Gobernu zentralak animaliak edukitzeari buruz idatzitako Ordenantza berria. Hori dela eta, Udal Ordenantza egokitu egin beharko dugu erregularizazio berri horretara, eta horrekin batera, betebeharrak sartuko dira, eta horien artean egon liteke hori, jabetzen baikara egunero sortzen duen arazoaz.
Udaltzaingoa	Auzokide batek Udaltzaingoaren kontrol handiagoa eskatu du Ipuruako auzoan.	Udaltzainek auzo guztietan ematen duten arreta eta egiten duten kontrola berdintsua da. Hala ere, arazoak antzematen direnean, indartu egiten da kontrola.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du ura presioz botatzeko eskolen fatxadetan, uso-kakaz beteta dagoelako.	Institutua ez da udal-erakin bat; hortaz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokio hura garbitzea.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Egoki tabernak ondoan dagoen jardinerari botatzen duelako zaborra.	Udaltzainak hainbatetan eta ordu desberdinetan bertaratu dira gune horretan eta ez da ikusi.
Zerbitzuak	Abontzako auzokide batek adierazi du ezen, esekitokitik arropa jausten zaienean, Astelena frontoiaren atzeko kalezulo batera erortzen dela, eta ezin izaten dutela berriz hartu ezin dutelako zabaldu kalezulora ematen duen atea. Eskatzen du giltza lagatzeko arduradunen bati.	Zerbitzu Sailean giltza bat dute, eta behar duen edonork eska dezake.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Indalecio Ojanguren 2 zenbakiko bizilagun batek salatu du Ipuruako merkatuko plazako teilatu-hodiak egoera txarrean daudela, azpian dauden garajeetan filtrazioak eragiten ari direla eta hormigoia altxatzen ari dela.	Ingurua aztertu ondoren, esku-hartuko da irits daitezkeen tokietan; horretarako, izkinetan dauden belarrak garbituko dira. Lan hori, trafiko-arrazoiengatik, abuztuan egingo da.
Udaltzaingoa	Santa Ines 8 zenbakiko auzokide batek galdetu du ea Ipuruan partidak daudenean bai unitate mugikorrek bai autobusak kontrako noranzkoan irten daitezkeen, buelta handiagoa eman beharra saiheste aldera.	Uste da gaur egun egiten dena dela modu egokiena ibilgailuen irteerarako.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du indargabetezko Markeskuako semaforoa Ipuruan partida dagoen egunetan.	Markeskuako semaforoaren zikloa duela hilabete batzuk aldatu zen, Ipuruatik jaisten diren ibilgailuei pasabide handiagoa emateko, eta ibilgailu horien pilaketa galarazteko.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea Ipuruan partidak dauden egunetan beste espazio batzuk egokitu daitezkeen auzoko bizilagunek beren ibilgailuak aparkatzeko.	Zaila da aparkaleku berriak egokitzea. Futbol-zelaiaren obrak amaitzeak egoera hobetzea ekarri du; izan ere, harmailen azpian eraikitako garajeak erabilia gutxiago dira aparkatzea debekatzen diren tokian partida-egunetan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzokide batek salatu du ez dela betetzen animaliak edukitzeari buruzko Ordenantza. Dioenez, txakur asko solte doaz eta jardinak txakur-kakaz beteta daude.	Animaliak edukitzeari buruzko Ordenantza urratzen duen txakur bat antzematen denean, jabeari esaten zaio edo, zirkunstantzien arabera, salaketa egiten da.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du Argatxako Jardinen inguruan hainbeste txakur ateratzen direla pasiatzera ezen bertako bizilagunak ezin baitira bertatik ibili.	Udaltzaingoa inguru horretan txakurrak kontrolatzeko kanpainak egiten ari da eragin ditzakeen eragozpenak saihesteko.
Zerbitzuak	Santa Ines kaleko auzokide batek eskatu du eskolen inguruko irisgarritasuna hobetzea.	Erreforma integraleko azterlan bat egin zen, eta joan den ekainean bidali zitzaion Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzari, baina oraindik ez dugu horri buruzko erantzunik jaso. Nolanahi ere, jarduera txikiren bat edo eraberritzeren bat egiteko aukera aztertzen ari gara, irisgarritasuna nolabait hobetzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du konpon daitezela Santa Ines kaleko jardinak inguratzen dituzten egurrak. Dioenez, haietako askok punta zorrotza dute eta arriskutsuak dira oinezkoentzat.	Zintarriak berrikusi ziren, eta, 2022ko apirilean konpondu ziren egoera txarrean zeudenak.
Alkatetza	Bizilagun batek eskatu du Haurreskola bat zabaltzeko auzoan.	Kontu hau Haurreskolen Partzuergoari dagokio.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du luzatu dadila Eroskiko azal gaineko parkingaren ordutegia. Adierazi du 22:00etan itzaltzen dela.	Harremanetan jarri gara Eroskiko mantenimenduko arduradunarekin, berriz ere gau osoan argia piztuta edukitzeko.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Debabarrena Mankomunitateak erabiltzen dituen aire-makinak ez direlako eraginkorrak bide publikoa garbitzeko.	Makina hauek zikinkeria aterarazten dute kotxeen azpitik eta makina sartu ezin den beste toki askotatik, gero makina ekortzaileak jasotzeko eta puntu guztiak garbi geratzeko.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du belar pila bat dagoelako JA Mogelego horman.	Lorategi bertikal naturala da, beraz, ez da egoki ikusten hori kentzea.
Hirigintza	Auzokide batek eskatu du Ipuruan egingo den kirol eraikin berrian solarium-zerbitzu bat jartzeko eta goiko kiroldegia handitzeko, garaje berriak sortuz.	Egungo eraikinaren azpian garajeak daude; hala eta guztiz ere, laster idatziko den aurreproiektuan aukera hori eta har ditzakeen beste zerbitzu osagarri batzuk aztertuko dira.
Obrak Zerbitzuak	/ Auzokide batek eskatu du okerrak prebenitzeko mantentze-lanak egin behar direla Ipuruako kiroldegian.	Obrak sailatik, kiroldegiaren estaldura birgaitu egin da.
Hirigintza	Herritar batek eskatu du Ipuruako Komentua babesteko, bai eta azokarekin eta eskolarekin batera osatzen duen monumentu-multzoa ere.	Komentuak ez du babesik indarrean dagoen Plan Orokorrean. Eusko Jaurlaritzarekin batera aztertu da komentuak eta elizak hirigunean duten balioa, eta azken hori mantentzeko konpromisoa dago.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Eskatu du umeentzako leku gehiago sortzea. Kexu da Argatxako Jardinetako eskola ez dagoelako egoera onean, eta adierazi du patioa txikiegia dela.	Gai horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagozkio. Guztiarekin ere, Alkatetzak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkarirekin izandako elkarrizketetan egoeraren berri eman zaio, eta, hori dela-eta, Hezkuntza Saileko Ordezkaritza ikastetxeko egoeraren jakitun da.
Alkatetza	Herritar batek eskatu du Udalaren ordezkariaren bat joan dadila Argatxako Eskola Kontseilura.	Hori zuzendu zen.
Zerbitzuak	Auzokide batek informazioa eskatu du Ipuruako merkatu plazan egiteko eskatu dituen lan txikiei buruz.	Bilera bat egingo da proiektuaren bultzatzaileekin haien eskabideak entzun eta jasotzeko.
Udaltzaingoa	Herritar batek salatu du inbutuak sortzen direla Egigurentarren kaleko garajeen irteeran. Dioenez, sarbidea estua da eta ez da bisibilitate gutxi dago. Ibi bat jartzea eskatu du.	Ibi bat emateko, lehendabizi eskabide formal bat egin behar da behar den bezala. Gero egiaztatzen da ea araudiak jasotzen dituen baldintzak betetzen dituen.
Zerbitzuak	Auzokide batek adierazi du ur-filtrazioak daudela Ipuruako jubilatutako plaza azpian dauden garajeetan.	Garaje horiek jabetza pribatukoak dira, eta Plan Orokorraren 8.3.06.04 artikulua araberako: "Sestra azpiko aparkaleku pribatuen gaineko espazio libreetan, titulartasun pribatua izango dute erabilera publikoa izan arren"... "Espazio horietan, jabeen erkidegoari dagokio eraikuntzaren egiturazko elementuak kontserbatzea, fatxaden aurrealdea eta portxeen sabaia zaintzea,

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
		<p>isolamenduak eta inpermeabilizazioak, eta euri- eta hondakin-urak saneatzeko eta husteko azpiegituren sareak mantentzea sare orokorrarekin lotu arte".</p> <p>Jabetza Horizontaleko legearen 10.1 artikulua araberan, erkidegoaren betebeharra da ondasun higiezinak eta horren zerbitzuak behar bezala iraunarazi eta kontserbatzeko beharrezkoak diren obrak egitea; horrela, ondasun higiezinak izango ditu egitura, ur-iragazgaitasun, bizigarritasun eta segurtasunaren inguruko baldintza egokiak."</p>
Udaltzaingoa	Auzokide batek adierazi du Romualdo Galdos 21 parean dagoen bihurgunean, oinezkoek errepidea igarotzen dutela zebra-bidea erabili gabe.	Toki horretan zebra-bideak daude eta oinezkoek horiek erabili behar dituzte. Tokiaren seinalizazioa zuzena da.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du zebra-bide bat margotu dadila Eroskiko parkingean, eta jostailu-dendaren eraikinaren ondoan dagoen marra horia kendu dadila.	Eskaerak Eroskiren aparkalekuari eragiten dio, beraz, horren barruko edozein jarduketa merkataritza-zentroaren eskumena da.
Zerbitzuak	Argatxako Jardinetako arbolak zaintzea eskatu du.	2022ko martxoan Argatxako Jardinetako 15 arbola kimatu ziren, ikusi ondoren azken hilabeteetan okertuta zeudela eta segutasun-arrazoiengatik. Komenigarritzat jo da arbolak adaburuak moztea, sustraiek hainbesteko pisurik ez izateko eta ez egoteko erortzeko arriskurik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu du edukiontzi bat jartzeko Santa Ines kalean plastiko eta ontzietarako.	Mankomunitatearekin dagokion azterketa egin ondoren, laster ontzietarako edukiontzi bat jarriko dela ondorioztatu da.
Zerbitzuak	Eskatu du garbitu daitezela Romualdo Galdos kaleko 4 dorreen inguruak . Dioenez, ez da aspaldian garbitzen.	Mankomunitatea desugertzeko makinarekin egiten ari da.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du loreak landa daitezela Romualdo Galdos 16 zenbaki ostean dagoen jardinean.	Ezin dira loreak landatu lorategi horretan, ez baitauka ureztatze sistamarik dagokion moduan mantentzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek salatu du pertsona batzuek zabor-poltsa botatzen dutela Ipuruako dorreen inguruan dauden paperontzietan, eta kexa adierazi du Mankomunitateko langileak kanpoan lagatzen dituelako.	Mankomunitateari abisua pasatu zaio. Diotenez, langileak ez du obligaziorik poltsa horiek jasotzeko, eta, halako zerbait ikusten duenean bere arduradunari jakinarazten dio, pertsona bat dagoelako berariaz kontratatua halako lanak egiteko.
Obrak	Ipurua 13 zenbakiko auzokide batek kexa adierazi du ez dagoelako zebra-biderik sarbide emateko Ospitale aurrean dagoen mezkitera joaten diren pertsonentzat.	Oinezkoentzako pasabide goratu bat eraiki da Eroskiko garajearen irteeran, tanatoriora joateko.
Hirigintza	Galdetu du ea proiekturik dagoen Romualdo Galdoseko fatxadak zaharberritzeko.	Fatxadak konpontzea ekimen pribatuari dagokio eta dirulaguntza-lerroak daude jabeen laguntzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

data: 2021/11/11

Saila

Laburpena